

Monitorizazioari buruzko jardunaldia Mondragon Unibertsitatean

2012/10/09

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak monitorizazioari buruzko jardunaldia antolatu du urriaren 11n Garaia Berrikuntza Zentroan aurkeztuko du.

Jardunaldiaren helburuak honako hauek dira:

- Prozesu eta sistemen monitorizazioaren gaur egungo egoeraren ikuspegi orokor bat ematea modu teoriko batean eta diziplina ezberdinak erabiliz.
- Hainbat sektoretako gaur egungo egoera ezagutzea.
- Prozesu eta sistema ezberdinetako esperientzia konkretuak erakustea.

Monitorizazio sistemek aukera ematen dute egiturak, sistema elektromekanikoak eta fabrikazio prozesuak etengabe monitorizatzeko, horien osasun egoera diagnostikatzeko eta etorkizuneko akatsei aurrea hartzeko. Monitorizazioak sistemen eta osagai kritikoen fidagarritasuna handitzea ahalbidetzen du, akats katastrofikoak iragarri. Horrez gain, mantentze lanen kostuak murriztea ahalbidetzen du, mantentze lanen kudeaketa eraginkorragoa egiteko informazioa emanez, osagaien bizitza luzatuz eta ekintza zuzentzaileak minimizatuz.

